

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

78. zenbakia

95eko urriak 6




Mondeju-festa Zaldibian

Nick Knight
J.M. Barandiaran, 1
☎ 16 00 51
ORDIZIA

 ick's
ENGLISH CENTRE

1976tik goierritarrei ingeles
hizkuntza eta kultura zabaltzen.

**ZURE
ETXEBIZITZA**



PUBLICIS MCM



**KUTXAREN
HIPOTEKA**

ETXEBIZITZA EROSTEKO MODURIK ERRAZENA

Hipoteka baten bila dabiltzan guztiei, KUTXAren HIPOTEKA aurkezten diegu. Urte askotako geure esperientzia guztia bere baitan biltzen duen hipoteka. Arazoak konpontzeko pentsatutako hipoteka. Ez arazoak sortzeko.

- INTERES-TASArenatik.
- AMORTIZAZIO-EPEArenatik.
- FINANTZAKETA-ZENBATEKOarenatik.
- Eta ZERBITZURIK ONENA eta AHOLKULARITZARIK OSOENA eskaintzen dizugulako. "ETXEBIZITZA EROSTEKO GIDALIBURU ERRAZA" bame dela, gure edozein bulegotan eskura dezakezuna.

Etxebizitza erosteko modurik errazena sakon-sakonetik ezagutu nahi baduzu, zatoz zeure ohiko **kutxa** bulegora edota deitu **900 41 20 20** telefonora. Eta hitzegingo dugu. Hipoteka baten bila bazenbiltzan, azkenean, ZORIONAK.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Postetxe-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.

124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.

Maketazioa:
Mikel Albisu.

Publizitatea:
Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Izaskun Salazar,
Aitziber Murua, Jon Mikel Ara-
no, Rufino Iraola, Nagore Goi-
buru, Aloña Galarraga, Josune
Amondarain, Iñaki Murua, Jo-
setxo Zufiaurre, eta Mari Joxe
Madariaga.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 5.100 ale. 4.900 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907


Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRA ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkiz-
unik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼

Fotoetxe, zilarrezko Olympus



Aurreko alean aipatu geni-
zuen, Olympus etxeak an-
tolatzen duen argazki den-
den erakusleho txapelke-
tan Fotoetxek (Beasain)
Europako 2. saria lortu zue-
la. Lehenengo aldia da ho-
rrelako sariketa batera aur-
kezten direla. Erakusleho
hau Beasaingo aurtengo
festetan jarritakoa da (2.
egin zuen). Bertan, Bea-
saingo Kiroldegian mugit-
zen diren herriko kirolariak
ateratzen ziren, hiru di-
mentsiotako efektua lortuz.
Jendeari asko gustatu eta
lehiaketara aurkeztea era-
baki zuten. "Argazki lana
eta montaje lana baloratu
dute batipat. Eskaparateak
argazki lana zeukan gehie-
na, geuk ateratakoak ziren
argazkiak", argitu digu Jo-
se Mari Telleriak.

Gehienez hilabete t'er-
dira aldatzen dute Fotoe-
txen erakuslehoak. "Ga-
rrantzia handia ematen diot
eskarapateari. Dendan
egiten den lana jendeak es-
kaparatean ikusi behar du.
Produktua baino gehiago
imagina saltzen du eska-
parateak. Publizitaterik one-
na horixe izan daiteke gai-
nera, jendeak eskaparatea
ikustera etortzeko ohitura
hartzea", azaldu du. Goie-
rrin orokorrean jendeak
ondo zaintzen ditu erakus-
lehoak idiazabaldarraren
esanetan. "Dendek, eska-
parateek izugarritzko bizia
ematen die herriari. Gai-
nera entretenimendua, de-
baldeko ikuskizun bat da".

Lake Oiarbide eta Bea-
triz Telleria Ordiziako
Goenen eta Gema Mujika,
Ainhoa Naldaiz eta Jose
Mari Telleria Fotoetxan,
guztiek elkarlanean lortu-
tako saria izan da Olympus
saria. "Saldu, argazkiak
atera eta eskaparateak jarri
dena guk geuk egiten dugu,
eta horrek dauka
garrantzia. Talde lan ho-
rren emaitza da saria, gure
lanaren errekonozimen-
dua. Eta aurrera segitzeko
gogoa pizten du.", dio Jose
Marik.

Besteek esana

"Euskara maxkal bat leku
guztietara hedatzea baino
beharrezkoagoa dugu eus-
kara zindo eta bizi bat ongi
errotzea zenbait gunetan
euskal kulturak erakarme-
nik izatea nahi badugu, bes-
tela urteetan euskal gizar-
tearen sektore zabaletan
nagusi izan den 'euskal
enblematikoaren' aroa az-
kengabeki luzatzea besterik
ez dugu egingo, aurrerapen
kuantitatiboaren maskara-
pean atzerapen kualitatiboa
kamuflatuz".

**Xabier Mendiguren Be-
reziartuk 'Egunkaria'n**
1995-IX-21ean.

"Gobernu espainiarraren
ustez, gure bizi baldintzak
gogortzen zituzten neur-
rian, horrek bitartekaritza
eragina izango zuen, jarrera
klaukagarragoak izango
baikenituen. (...) Hau
(Santo Domingo) ez da
Salto del Negro, baina he-
men begetatzera behartu
nahi gaituzte".

**Belen Gonzalezek laz-
kaotar deportatuak 'Egi-
n' en 1995- IX- 25ean.**

"Zuhurtasunez, buruz eta
pazientziz jokatu ezkerro, ez
dut uste kirol eskalada
arriskutsua izango denik"

**Josune Bereziartuk irai-
leko 'Desnivel'en**



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

**Eusko Jaurlaritz-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Kultura musutruk!

Prest!, abiatu dira Udal berriak. Aurten bertan aukeratu berri ditugun zinegotzi eta alkateak lanean dira eta ea orain zer gertatzen den. Hainbeste aldiz entzun dudana "auzolana" egiteko prest ote gaude? Auzolana, berez, auzokoen artean egiten den lana da, gutxi edo gehiago denen mesedetan izango dena. Garai batean baserritarrak elkartu eta denen artean hainbat lan egiten zuten: bideak konpondu, basoak garbitu, belarretan... Hamaika aldiz entzunak dizkiegu horrelako kontuak gure gurasoei. Eta ez etxean bakarrik, Udaletxean ere, kultura sailean, etengabe entzuten dut "auzolan beharra".

Auzolana erabat interesgarria eta ona ikusten dut, zoragarria: egin behar diren lanak, gehienetan, errazago eta hobeto egiten dira bakarrik baino taldean. Gehiago esango nuke: kontsumoan eta aberastasunean hain oinarritua dagoen gizarte honetan dirurik gabeko "trupeak" piska bat bederen funtzionatuko balu, zoragarria litzateke:

-*"Nik josteko abildadea badet eta ezer josi beharrik dezunean..."*

-*"Nik ezertan ikasi banon, sukaldean ikasi non ba!, launtzaik bahar bazu..."*

Horra honi guztiari buruzko nire kezka: "auzolana"ren izenean, kultura mailan bakarrik egin behar ote dugu lana musutruk?

J. M. (Lazkao)

Euskal jaian euskal musika

Ordizian, iraileko lehenengo asteazkenean, urtero bezala euskal jaia ospatu zen. Egun honetan, euskal giroa herri guztian nabarmena zen. Tabernetan ere giroa ezberdina zen, euskal musika entzuten zen gehienbat.

Zergatik euskal musika egun horretan bakarrik?

Ordizia euskalduna egun horretan al da bakarrik?

Zergatik ez da entzuten euskal mu-

sika gehiago urtean zehar?

Ez al dugu merezi hori baino gehiago?

Espero dugu urtean zehar ahalegin handiagoa egingo duzuela. Euskera ez bait da urtean behin erabiltzeko hizkuntza, egunero baizik.

Goierriko E.H.E.

Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura (ezizenez ere izenpetu liteke) eman beharko dira.



Giro fator eta atsegina
BASAKANA
ITURRIOZ 11
BEASAIN



LANCIA
ETXE - AZPI
☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



TXINDOKI

LOGOS

altzarien banatzaile ofiziala

Sukalde eta bainuko altzariak

J.M. Iturrioz, z/g (Matadero parean)
BEASAIN

☎ 88 03 98

Intereseke Telefonoak

Gure korrespontsalen telefonoak

Ataun:

Jon Aizpurua180139

Beasain:

Izaskun Salazar880313

Ezkio-Itsaso:

Pilare Mujika.....160560

Gabiria:

Gabino Murua160803

Idiazabal:

Aloña Galarraga801375

Itsasondo:

Eduarne Ayuso.....160615

Lazkao:

Iraida Martin883617

Legorreta:

Josune Amondarain...806026

Olaberria:

Nagore Goiburu160616

Ordizia:

Aitor Calvillo160563

Ormaiztegi:

Aitziber Murua.....880998

Segura:

Joseba Telleria889174

Zaldibia:

Rufino Iraola884353

Zegama:

Eduarne Albizu801351

Errezeta

PERRETXXIKUZ BETETAKO HOJALDREA

Osagaiak: (30 hojaldreentzat): litro bat esne, 100 gr. gurin, 125 gr. irin, litro laurden esnegain likido, kilo bat haztegiako perretxiku, tipula bat, piper berde bat, 30 hojaldre.

Lehenengo tipula eta piper txikitua gorritzen utzi. Puska txikietan egindako perretxikuak gaineratu eta sutan 5 minutuz eduki. Jarraian olioak kendu eta utzi.

Ondoren bexamela egin esne, irin, gurin eta esnegainarekin, piper txuri piska bat eta starlux pastila erdi bat gehituz gatzaren orde. Bexamela eta perretxikuak nahastu eta 5 minutuz eduki su bajaran. Hozten utzi eta hojaldreak bete. Hori bai, hojaldreak zerbitzatu behar diren unean betetzea komeni da, bestela hojaldrea bigundu egiten baita. Zerbitzatu aurretik hojaldreak labean sartu.



Maria Pilar Alonsok emana

Zaldiak jatetxea Olaberria

Bota bertsoa



Ikerne Urrestarazu Gaia: Maitasuna Doinua: Lazkao-Txiki-reen "egunsentiari"

Hitz xamur eta gozoezia da gaur tokatu zaiguna maitasun grinak ematen digu bizitzeko poztasuna batzutan argi ta dizdiratsu beste batzutan iluna ederra eta polita bezain gogorra da maitasuna.

Pentsatu ohi dut maitasuna da bizitza honen zutabe eta askotan egiten zaigu gure bihotzaren jabe nahiz eta gure barnean sartu sarritan hainbat nahigabe zer litzateke gure bizitza maitasun izpirik gabe.

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR

-ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



meca rapid

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Lana

□ Mekanografia lanak makinak edo ordenadorez egiten dira. Eider. 161667.

Etxebizitzak

□ Donostian pisua osatzeko neskak behar dira. 180099.

□ 3 lagun behar ditugu Bilbon pisua osatzeko (Deustuko Unibertsitate ondoan). 882938 (Egoitz).

□ Urretxun kanpokaldera ematen duen etxe bat dago salgai, egoera onean eta amueblatua. Dei iluntzeko 8etatik aurrera, 72 22 03.

□ 2 lagun behar ditugu Bartzelonan pisua osatzeko (Arco de Triunfo ondoan dago). Dei 883310 edo 881337 telefonoetara Ainhoa edo Naiaragatik galdetuz.

Salerosketak

□ Kontzertuko akordeoia salgai, Pignini markakoa. Eskubian 63 nota eta 15 erregistro. Baju kromatikoarekin eta 120 baju. Deitu 3etatik 4etara edo 10etatik aurrera, 458706 telefonora.

□ Autokarabana salgai. Mercedes-130, poliester, dutxa, sukaldea, frigorifikoa e. a. Txasisa eta motorra berriak ditu, 800.000 pzta. 450697 Jokin.

□ Labadora bat salgai "Babay T-8223". Larunbat goizetan deitu. 884580.

MUSIKA

✓ Zaldibia:

Urriak 10, Gozategi anaiak, 23:00etan, plazan.

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 6, "Dos policias rebeldes", 7:30 - 10:15.

Larunbata 7, "Dos policias rebeldes", 7:30 - 10:15.

Igandea 8, "Dos policias rebeldes", 5:00 - 7:30 - 10:15.

Astelehena 9, "Dos policias rebeldes", 7:30 - 10:15.

Osteguna 12, "Rob Roy", 5:00 - 7:30 - 10:15.

Ostirala 13, "Rob Roy", 7:30 - 10:15.

Larunbata 14, "Una historia del Bronx", 7:30 - 10:15.

Igandea 15, "Una historia del Bronx", 5:00 - 7:30 - 10:15.

Astelehena 16, "Una historia del Bronx", 7:30 - 10:15.

Goieniz Zine Kluba:

Urriak 19, 'Amateur', 20:50ean, Usurbe Antzokian.

BESTELAKOAK

✓ Zaldibia:

Urriak 8, Takolo, Pirritx

'Amateur' - Hal Hatley (EEBB, 1993)

Thomas eta Isabelleren gora-beherak ditugu ikusgai; lehena amnesia jotako gizon bihozbera bezain samurra, bilaketa agindupean dagoen gaizkile arriskutsua dela ere gogoratzen ez duena, bestea, aldiz, ipuin lizunak idatziz ogia irabazten duen moja ohia.

Isabellek, jainkoak berarentzako eginkizun izkutu bat gordeta daukala, sinesten du eta New York-en zehar noraezean dabilela egingo du topo Thomasekin. Elkarrekin, Sofia (aktorea porno gajoa) askatzen saiatzen dira, erahil nahi duten mafioso batzuen atzaparretatik eta konturatzerako hirurak ere jazarriak izango dira, hiltzaileak Thomas-en atzetik ibiliko baitira burubelarri. Hau, berriz, bere gaizkile iraganaz oroitzeko gai ez denez, Sofia eta Isabelle babesteaz gogoz arduratuko da.

Hartley-rengana ohikoa denez, filmearen egitura oso zehatza den heinean, estuegia ere gerta daiteke. protagonistek, beti gizaki baztertuak izaki, amerikar gizarte atsekabeta irudikatzen badute ere, planteamendu moralen jabe eta adierazle dira, gizarte merkatal-irizpideen arabera zuzendua den bitartean.

eta Porrotx pailazoak, 17:30ean.

✓ Ordizia:

Urriak 4, Virginia Imazen ipuin kontaketa, Udal Liburutegian arratsaldeko 5etan.

IKASTAROAK

✓ Beasain:

Urriaren 6an hasita, 'Emakumea eta lana: motibazioa, orientazioa eta inserzio laborala' ikastaroa. Ostiraletan 15:00etatik 19:00etara, guztira 40 ordu. Matrikula 3.000 pezeta.

Urriaren 21ean, Antzerki Tailerra jarriko da martxan, Rosa Rojo eta Ane Garmendia aktorea beasaindarren zuzendaritzapean. Taldearen batasuna, erlajazio, arnasketa, gorputz espresioa, ahotsa, espazioaren kontzientzia eta sorkuntza, pertsonaiaren karakterizazioa, inprobisazio teknikak, e.a. landuko dira, larunbatero 10:00etatik 14:00etara. Hileroko kuota: 1.500 pezeta. Informazio gehiago Beasaingo Udaleko Kultur Sailean (885051) duzue.

UDAZKEN KULTURALA

✓ Beasain:

Urriak 15: 9:00etan IV. Aire Zabaleko Pintura lehiaketa, Kultur Etxean. *9:00etan* IV. Diapositiba Rallya, Udaletxean. *17:30ean* Haurrentzako kaleko eskulan tailerra, Joan Iturralde Plazan.

Urriak 16: 19:30ean Beasaingo Paperak bildumaren 4. zenbakiaren aurkezpena Usurbe Antzokian: Josetxo Zufiaurren 'Beasaingo kale-izenen historia'.

GOIERRITARRA



88 96 12



Tfona: 885500 ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea eta mekanika

Volkswagen taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

Urriak 17: 9:00etan VIII. Errezil sagar eta postu dotoretasun lehiaketa S.M. Plazan. **18:00etan** 'Katea' ko katea jarrita zegoen harri originaletan garbitu eta ber-jarriak izan ondoren, plaka irekitzea, Katea auzoan.

Urriak 18: 17:30ean irakurketa suspertzeko emanaldia Pello Añorgarekin, Udal Liburutegian. **19:30ean** Musika Eskolako ikasleen kontzertua Usurbe Antzokian.

Urriak 19: 21:00etan Zine Kluba: Hal Hartleyren 'Amateur'. **22:30ean** Javier Arrillagaren 'Contrastes' azken diskaren aurkezpena, Loinatz Tabernan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Urriaren 13ra bitartean, Fernando Fernandezek erakusketa, Aterpe Tabernan.

Urriaren 14tik azaroaren 3ra arte, Maite Gaztelumendiren erakusketa, Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Urriaren 6ra bitartean, Agustin Bakeroren pintura erakusketa, Barrenan.

Urriak 13tik 27 ra, Mari Carmen Aguadoren pintura erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 8, mendi garbiketa.

Urriak 15, Nafarroa Oinez 95 (Tutera).

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 8, Ilarazu-Urto.

Pausogaizto Goierriko mendizaleak:

Urriaren 12tik 15era, Pirineotako hirumilak.

GOARDIAKO BOTIKAK

Urriak 6: Cuesta; **7-8:** Atorrasagasti; **9:** Arriola; **10:** Urbizu; **11:** Atorrasagasti; **12:** Azpilikueta; **13:** Jauregi; **14-15:** Urbizu; **16:** Laurnaga; **17:** Cuesta; **18:** Arriola; **19:** Urbizu.

OHARRAK

✓ Beasain:

Urriaren 9an hasiko dira Udaleko Euskara Batzordeak, Udal Euskaltegiarekin eta AEKekin batera, merkataritza alorrean lan egiten duen jendearentzako antolatutako 100 orduko euskara ikastaroak (asteen 3 egun). Informazio gehiagorako deitu lehenbailehen Udaleko Euskara Zerbitzura (887512).



Udazkena bete-bete

Udazkeneko eguraldia eta udazkeneko produktuak nagusitzen ari dira piskana-piskana udazkena aurrera doan eran. Onddoak ugari, bai kanpoko (200 kilo, 1.000-2.000 pezetan) bai bertako (30 kilo 2.500 pezetan). Nikaloak ere 10 bat kilo azaldu ziren, 800-1.000ean; baita lanpernak (3 kilo), 800ean; ziza-horiak (5-6 kilo) 2.500ean eta gibelurdinak (2 kilo) 2.500ean ere. Ehi-zari dagokionez, berriz, 10 tortola (500ean) eta 10 galeper (300ean).

Dena den nobedade gehienak **kanpoko produktuetan** izan ziren. Klementinak azaldu ziren lehenengo aldiz. Hauez gain, Valentziako laranja berriak 175ean; granadak 225-240ean; nahis (sagar eta udararen nahasketa) 250-280an; mangoak 160ean bakoitza; kiwiak 370-400ean; mandarinak 150-225ean; Italiako moskatela 175ean eta menbrilloa 90-100ean.

Bertako produktuetan honelaxe daude prezioak: urrak 250-400 pezetan; gaztainak 250-350ean; udareak 160-250ean; marrubiak 500ean; pikuak 100-250ean; sagarrak 100-200ean; intxaurreak 450-500ean; mebrilloa 200ean; lekak 350-400ean eta tomateak 150-200 pezetan.

Arrainetan prezioek zertxobait behera egin dute. Legatza 1.400-1.600 pezetan saldu zen; itsas-oilarra 1.160an; txipiroiak 1.400ean; txitxarro txikiak 520an; antxoak 840an; sardinak 600an eta hegaluzea 1.160an.

Arkumerik ere izan zen, 19 buru guztira. 600 eta 700 pezeta bitartean saldu zen kiloa. Landareei dagokionean bestalde, udaberriko aza landarak ere azaldu ziren. Zientoa 500ean saldu zen. Era berean aipatu, Ibarako piper txikiak poteetan sartuta ekarri zituztela Ibarra aldetik. Kilo erdiko potea 350ean saldu zen.

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 88 20 07 BEASAIN



OTEÑE
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabe

Larraitz bidea

GAINTZA

88 98 48



SEXUALITATE

IKASTAROA izango da Beasaingo Antzizar Kiroldegian urriaren 6, 13, 20 eta 27an, 19:00etatik 21:00etara. 18 eta 29 urte bitarteko gazteentzat da ikastaroa. Fidantza moduan 700 pezeta ordaindu beharko dira, eta % 75eko asistentziarekin dirua itzuliko da. Izenemateak Beasaingo Udaletxean edo Antzizar Kiroldegian bertan egin beharko dira.

BEASAINGO JEN-DAURREKO IV.

MARGO SARIKETA antolatu Arrano Kultur Elkartek urriaren 15erako. Gaia Beasaingo herria (aurten auzoetara ere zabalduta izango da). Lana egiteko era eta neurriak libreak izango dira, eta baita pinturaren oinarri erabil

daitekeen materialeak ere. Euskarriak lehiaketa egunean goizeko 9etatik 11ak bitartean, Kultur Etxean markatuak izan beharko dira. Euskarriak lanerako aurretik prestatuak eraman daitezke, baina ez da onartzen marrazki, zirrimarra edo marra aztarnarik edukitzea. Lanak Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan aurkeztuko dira 13:30etatik 14:30ak bitartean, egilearen xehetasunak dituen kartazalarekin batera. Ondoren nahi duenarentzat bazkaria izango da Arrano Elkartean. Aurkeztutako lanekin erakusketa bat egingo da erakusketa aretoan bertan, urriaren 15etik 29ra. Sariak:

* Helduetan lehenengoari 85.000 pzta. eta ikurra; 2.ari 40.000 eta ikurra; 3.ri 30.000 eta ikurra. 10.000

pezetako accesita izango da.

* Herriko helduetan: 1goari 45.000 pzta. eta ikurra; 2.ri 18.000 eta 3.ri 12.000.

* 16 urte bitartekoetan: 1goari 10.000 pzta. eta ikurra eta 2.ri 8.000 pzta.

* Herriko gazteetan: 1goari 8.000 pzta. eta ikurra eta 2.ri 5.000 pzta.

BEASAINGO ARGAZKIGINTZAKO IV. RALLYA

Beasaingo Argazkigintzako IV. Rallya



1995eko urriak 15, igandea

BEASAINGO ARGAZKIGINTZAKO IV. RALLYA ere urria-

ren 15erako antolatu du Ortizadar Argazki Elkar-teak. Nahi duen argazkilari guztiek har dezakete parte. Urriaren 15ean bertan, goizeko 9etatik 10etara egingo da izenematea Beasaingo Udaletxean. Modalitatea: diapositibak. Par-taide bakoitzari errebelatua daraman pelikula bat emango zaio 1.000 peze-taren truke. Gaiak: karrete-a banatzerakoan gaia eta ibilbidearen berri emango da. Sariak: 1.go saria 15.000 pzta eta trofeoa; 2.a 10.000 pzta. eta trofeoa; 3. saria 5.000 pzta eta trofeoa; bertako eta Elkarteko lehenari 5.000 pzta. eta trofeoa emango zaizkio. Sari banaketa eta aukera-tutako diapositiben proiektzioa urriaren 29an, 20:00etan izango da Beasaingo Udaletxean.



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfonaok: 880243 - 880133
BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

Zurgindegi mekanikoa


JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran ZERAMIKAK

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Komunikazio hizkuntza

Iragarkiak, komunikazio hizkuntzan oinarrituta daude eta gehienetan, beren helburua ezin hobeto betetzen dutenik ezin ukatu. Begiratu bestela zenbat patrika husten duten, beren eraginez, behar ez diren hainbat gauza erosaraziz edo on baino kalte gehiago egiten dutenak, askotan.

Lehengo batean, telebista ikusten ari nintzela, seme-alabek egiten zizkien bihurrikeriengatik postrerik gabe zigortzen zituen amaren iragarkia ikusi nuen. Iragarkiaren amaierak zera zion: "Lasai, zuri gehien gustatzen zaizkizun yogourrek, hiru hilabete ere iraun dezakete kaskatu gabe". Behar bada etxeokoandrea sartu beharko dute frigorifikoan, ea hoztuta pazientziak gehiago irauten duen!

Hurrengo egunean berriz, irratiz egundoko algarak entzun nituen eta "ja, ja, ja... ez daukazu oso aurpegi ona gaur, antzematen da zure ohea ez dela halako mobiliariotatik erositako..."

Bizitzarako heziketa edo "edukazioa" esaten dena ere, eskoletan behintzat, gero eta gutxiago jasotzen duela gazteak eta kalean nahiz komunikabideetan duela bere gustoko uren iturria.

Baina, iragarkiok asmatu dituztenak non hezi ote dira? Eta horiek beren komunikabideetan botatzen dituzten Jaun/Andere miresgarri bezain errespetagarriak? Eta botarazten dituztenak? Azken batean, asko saltzeko (edo erosarazi) eta irabazteko, edozein bide erabil badaiteke, inork ez badu heziketaren oinarritzko gutxienezko errespetatu behar, zertarako hainbeste milioi inbertitu? Zergatik kejakten dira edozeinek zernahi egiten duelako? Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu!

Īñaki Murua



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA


- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49


OLABERRIA

Ehiza bai ala ehiza ez?



Juan Iruin
49 urte, errekadista
gabiriar Lazkaoratua

Ez naiz ehiztaria, baina ez nago ehizaren aurka. Jateko garaian ere ez naiz batere zalea. Alemanian benenoa botatzen aritzen dira usoa akatzeko eta hemen oso gutxi batzuek horrela?



Igor Etxeberria
19 urte, igeltseroa
beasaindarra

Ekologisten jarrera ulertzen dut, baina baikoitzak berak ikusi behar du zer egin. Ez naiz ehiztaria, baina mahaian jarritz gero oso gustora jaten dut.





Aitor Garmendia
25 urte, tabernaria
Beasaingoa

Ez daukat garbi baina ez zait batere gustatzen. Jende askok joku bezala hartzen du eta etikoki ez zait gustatzen. Gainera kotoekin diru asko gastatzen da eta mafiatso bat sortzen da hor.



A ze flaxa!



Zaldibin aurkitu dugu, Frantziako Tourrera nondik joaten den adierazten duen bide seinalea, Luz Ardiden zehazki esateko. Ez dakigu, hurrengo Tourra Zaldibitik pasatuko den, Larraitzeri izen berria jarri dioten edo Pirineo aldean izan diren zaldibitarren batzuk egindako bihurrikeria den.



Inprimategia

EGUZKI
Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfnoa: 880543 BEASAIN



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-
nondon.



Josetxo Zufiaurre Goya

***“Honela astialdi
luzeagoak
ditugunerako
garrantzi
haundiagoko
lanetarako plan
konkretuak
egingo ditugu
eta horiek
gauzatzeko
irriak eraginda,
hirugarren
adinera noiz
helduko ilusioz
biziko gara”***

Eguneroko lanarekin batera egin genitzakeen beste hainbat eginkizun, gure bizitzaren osagarriak izan daitezke. Eta gehienetan, gaur egungo merkataritza arloko aurreko muturrean gabiltzanon tentsioa eta presioa arintzeko gomendagarriak dira gainera.

Batzuk eskulanetan benetako artistak dira; besteek lorazaintza, baratza edo fruitu-zuhaitzak zaintzea nahiago dute; badira halako batean bere koadroak edo, edozerena delarik ere, bere bilduma bikaina ikusi ondoren ahoa zabalik uzten gaituenik. Eta hau, astialdiko eginkizun arruntenak aipatzearen, zeren eta arlo honek giza adimenaren muga besterik ez du.

Bi iharduera hauen --nagusiena edo arautua eta bigarren mailakoa edo astialdikoa-- osagarriari aisia, atsedena edo tarte librea dei geniezaioke, beste ahalbide pila bat aukeran uzten digularik, hala nola ibilaldiak, soinketa eta beste ariketa fisikoak, irakurketa, entzuketak, ikuskizunak, solas, arte, politika edo gastronomiari buruzko gizarte-harremanak eta pila bat gehiago. Ezagutzen dut bere denborak horietako gehienak egiteko ematen dionik eta ia ezertarako ematen ez dionik ere bai. Baina gauza jakina da arazoa ez dela ez metroarena, ez erlojuarena, norberaren jarrerarena baizik.

Honaino irakurri duen batek baino gehiagok, lehen eta hirugarren atalekin berak dagoeneko nahikoa duela pentsatuko zuen. Beste edozein ihardueratan zertarako sartu? Bizimodua zertarako konplikatu? Baina egun batean hainbeste itxarondako erretiroa iristen zaigu, eta lana hain bat-batean etetzen da egunero zortzi ordu edo gehiagoko hutsarteak uzteraino. Eta gure gorputzak, ezer ez baleki bezala, goizeko zazpietan esnatu eta “gure esanera jarren” jarraitzen du. Eta orduan hirugarren atala egun osoa betetzeko gehienetan ez da nahikoa izaten, eta hasiera bateko nagi-gozozko egunak igaron ondoren, asperkeria eta zabarkeriaraino eramanez dezakeen gehiegizko gelditasunean erortzeko arriskua dago, gure inguruan egunetik

Erretiratu... eta zer?

egunera gertatzen diren hainbat gauza ederrez liluratzeko eta mirestekoko gaitasuna galtzeko bidean jarriaz.

Gure lurraldearen luze-zabalean, hirugarren adina deituriko biztanlegoen artean, halako harreman ona izan duten eta oraindik ere duten ikastaro monografiko guzti hauek, gehienak eskulanen ingurukoak, gorago esan duguna berrestera etorri dira. Azken batean, bigarren atalean kokatzen diren ihardueretarako zaletasuna sortzera zuzenduta ekimenak dira, baina “a posteriori”.

Beste ahalbidea, bere iharduera nagusiko erretiro edo lan-uztearen aurretik, bere bizitzan noiz behinka egin izan dituen lanen artean aukera egin ondoren, pertsona bera bere iharduera osagarria sortuz joatea litzateke. Nire ustez, neronen esperientziaren arabera behintzat, iharduera hori urteak lehenagotik sortzea eta egitea hobe dela uste dut. Honela astialdi luzeagoak ditugunerako garrantzi haundiagoko lanetarako plan konkretuak egingo ditugu eta horiek gauzatzeko irriak eraginda, hirugarren adinera noiz helduko ilusioz biziko gara, gaur egun gehienak behintzat osasun on eta urte ugarien ikuspegi iristen garenik gainera.

Niri dagokidanez, 1973a izan zen, urteak lehenagotik ezaguna nuen On Jose Migel Barandiaranek gidatuta, ikerketa etnografikoko nire lehen lana egiten hasi nintzen urtea. Lanaren izenburua hau zen, ‘Aralar mendizerra-gailurrak, sarioiak, iturriak, trikuharrak’ eta hori lantzeko lanunbat arratsalde eta igande goizak ia osorik horretara emanik, bi urte behar izan nituen. Egia esan, hain gertu daukagunez gure igandeko ibilaldien berezko irteera den Aralar mendizerrari buruzko, ahalik eta osatuena izango zen lan-koaderno bat egitea zen nire helburua.

Umea nintzela nire aitak mendira eramaten ninduenetik, mendi honi buruz argitaratzen ziren xehetasunak eta mapak jasotzeaz zaletu nintzen. Haundiago egiten ari nintzela, nire aitak aipatu eta erakusten zizkidan gailur, sarioi, iturri eta leku-izenak, nik bildutako mapa denak aipatzen zituztenak baino askoz gehiago zirela ohartu nintzen. Horrek eraginda, neronentzako ondo osatutako mapa bat egitea erabaki nuen, eta igandero gure ibilaldietan jasotzen nituen izenak gero etxean sistematikoki zuzentzen aritzen nintzen.

Behin egin eta gero, trikuharraren izenak eskatzera On Jose Migelengana jo nuen. Lana ikusi zuenean, oso interesgarria zela esan zidan eta “Pelota lekuak” (mende honen hasiera arte artzainak pelotan jokatu ohi zuten zabaldu edo zelai-ordekak) aurkituz osatzera bultzatzen ninduen. 60-tik gora ziren sarioiak oinez berriro pasa ondoren, artzainak beren aurrekoei entzun zieten gogoratzen zituzten 9 leku, beren izen eta guzti, agertu ziren.

On Jose Migelek lan hura nire eskuetan bakarrik ezin zela geratu eta argitaratu egin nahi zuela esan zidan, bihotzaren estutasunean hori ukatzeko nire ahalegin lotsatiaren aurrean, zuen goxotasun guztiaz ikerketa baten emaitza norberarentzat gordetzea etikoa ez dela erakutsi zidan.

Bere ‘Anuario de Eusko Folklore’ izeneko urtekarian, 1975-1976 urteei dagokien 26. zenbakian argitaratu zuen. ‘Pyrenaica’ aldizkariaren 110. zenbakian ere argitaratu zuten gero eta Etor argitaletxearen ‘Mendiak’ liburuaren II. alean.

Harrez gero, On Jose Migel etnografi-ikerketako metodologiari buruzko materialek emanek joan zen eta, berak gonbidaturik, Gipuzkoako Etniker Taldeko partaide izatera iritsi nintzen 1978an.

Niri dagokidana aipatu badut, pausoz pauso gauzak lortzen joaten direla azaltzearen izan da. Egunero saiatuz edozein lan egitera iritsi daiteke. Beraz, eguna iristen denerako utzi gabe maiteena den lanari bertatik heldu.

HERRIA	IKASTETXEA	Ikasle berriak		HH	OHO	BBB UBI	LH	IEE	Eredua			Eskaintza
		2 urte	3 urte						A	B	D	
Ataun	J. M. Barandiaran H. E.	9	9	35	89						124	2 - 14 urte
Beasain	Alkartasuna Lizeoa	18	13	140	408	321					869	2-18 urte
	La Salle - San Jose	25		118	409					270	257	2 - 14 urte
	Loinazpe Ikastetxea			13	98					111		3 - 14 urte
	Murumendi Ikastetxea	23	26	123	212					146	184	2 - 14 urte
	Txindoki Institutua					465		32	123	56	313	14 - 18 urte
Gabiria	Herri Eskola	2	1	8	14						22	2 - 12 urte
Idiazabal	Aita Iparragirre H. E.		14	43	154						197	3 - 14 urte
Itsasondo	Herri Eskola	3		13	19						32	2 - 14 urte
Lazkao	San Benito Ikastola	26		135	339	135					609	2 - 18 urte
	San Prudentzio Ikastetxea	3		29	81						110	2 - 14 urte
Légorreta	Herri Eskola	10		45	83						128	2 - 14 urte
Olaberria	Herri Eskola		2	6						6		3 - 5 urte
Ordizia	Goierri L. E.						829	227	414	140	502	
	Jakintza Ikastola	20	37	140	400	115					655	2 - 18 urte
	Milagrosa Ikastetxea	10		47	106					106	47	2 - 14 urte
	Urdaneta / Oianguren	28	15	161	290	246				156	531	2 - 18 urte
Ormaiztegi	San Andres Ikastetxea	11		43	137						180	2 - 14 urte
Segura	Laiotz Herri Eskola		8	34	107						142	3 - 14 urte
Zaldibia	Lardizabal Herri Eskola		11	43	86						129	3 - 14 urte
Zegama	Herri Eskola		10	29	111						139	3 - 14 urte
Zerain	Herri Eskola		2	6	4						10	3 - 8 urte
GUZTIRA		188	148	1211	3147	1282	829	259	537	991	5180	

HH: haur hezkuntza (5 urte arte). OHO: edo lehen ezkuntza 14 urte arte.

LH: lanbide hezkuntza. IEE: (REM) irakaskutza ertainetako erreforma.

Goierriko ikastetxeei errepasoa

Taula honetan Goierriko hezkuntza datuak bildu nahi izan ditugu: matrikulaketak eta ereduak. Hona hemen taula irakurri ondoren jakin beharreko zenbait xehetasun:

✓ Orokorrean, lehenengo aldiz matrikulatu direnen kopurua zertxobait igo egin dela esan daiteke.

✓ Loinazpe Ikastetxeak ez digu lehenengo aldiz matrikulatu direnen daturik eman nahi izan. Era berean, ofizialki B ereduaren funtzionatzen badu ere, euskara hutsezko talderik bada Loinazpen. Olaberriko Herri

Eskolan ere, D ereduaren pare-pareko da B eredu. Berdin gertatzen da Ordiziako Milagrosan.

✓ Jakintza Ikastolan eta Alkartasuna Lizeoan B eredu 'bereziko' ikasleak badituzte D ereduko ikasleekin nahastuta.

✓ Goierri Lanbide Eskolan LH2-an A eredu da nagusi, LH1-ean B eta D ereduak taldeak bakarrik egon arren. LH2-an espezialitatea hartzean, euskaldunak eta erdaldunak nahastu egiten dira. IEE edo REM-en D ereduko taldeak besterik ez

daude. Bestalde, Hezkuntza Bereziari 26 ikasle daude eta bakoitzari bere hizkuntza, era indibidualizatua ematen zaizkio klaseak.

✓ Urdaneta eta Oianguren Institutuetan bat egin dutenez, datu bateratuak jarri ditugu taulan. Ereduei dagokienez, eta datu zehatzagoak emanez, Urdanetan B ereduaren ikasten ari direnak 150 dira eta D eredukoak 301. Institutuan berriz, B eredukoak 16 eta D eredukoak 230 dira.

Ba al dakizu?

ITEA, Altzairuzko Egituraren Institutu Teknikoa, marketing bulegoa martxan da Ordizian urriaren 4az geroztik. Institutu honen helburua erakuntzarako altzairuzko egituren erabilera sustatzea da. Ordiziako industria-gunean, orain artean Goieki kokatua egon den egoitzan dago hain zuzen ere. J.J. Arostegi Olaberriko Aristraingo burua dugu ITEAko zuzendaria. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Jose Antonio Ardanaz hartu zuen parte. Erakundearen sorrera lagundu duten enpresak Aristrain, Francisco Ros Casares, Comercial de Laminados, Urssa (MCC), CSI Productos Largos, Laminados Velasco eta Callfersa dira.



INTERNAZIONALISTA EGUNA ZALDIBIAN izango da urriaren 22an Askapenak antolaturik. Egitarau oparoa antolatu dute egun horretarako: bertsolariak, trikitilariak, dantzariak, Norge Batista kubatar abeslaria, bazkaria, ekitaldi politikoa eta abar luze bat. Hurrengo alean izango duzu xehetasun gehiago.

KIOSKO LAPURRA ATXILOTURIK. Beasaingo 17 urteko gazte bat detenitu zuen joan zen

asteburuan Ertzaintzak Ormaiztegin, abuztuaren 5ean, Lazkaon egunkariak saltzen dituzten kiosko batean lapurreta egin zuelakoan. Barne Sailaren arabera, zerbitzuz kanpo zegoen ertzain batek lapurreta unean, ezustean harrapatu zituen hiru lapurrak atea indarrez irekitzen ari zirenean. Joan zen asteburuan berriz, atzeko argirik gabe zebilen Seat 131 autoa gelditu eta bidaiari bat ustez Lazkaon lapurreta egin zuenatariko bat zen. Atxilotu eta epailearen esku utzi zuten.

GOIERRI EHNE-ren (nekazal sindikatuak) ikuspegitik, Goierri duen arazo bat zera litzateke Ardatza aldizkarian argitaratu dutenez: *"antolaketa egokirik gabe nekazal lurrrak okupatzea. Gainera, antolaketa moduren bat martxan jartzen denean, nekazaritzari-abeltzantzari ez zaio merezi duen adinako garrantzia ematen. Izan ere Lurralde Antolaketarako Jarraibideen arabera, Zaldibia, Ataun, Segura, Zegama, Ezkio-Itsaso eta Gabiria 2. etxebizitzetarako trataera ematen zaie, honek dakarren arriskuarekin nekazal lurrrak okupatzeko eta beraiekin espekulatzeke. Are gehiago, eraikuntza horien gehiengoa 2. etxebizitzetarako badira, herriaren izaera eta nortasuna ere galtzeko arriskuan daude nekazal lurrez gain".* Bestalde, EHNEk garbi ikusten du N-1 errepidearen hobetzea beharrezkoa dela. *"Baina ez dadila gerta bertako errealitatearekin kontatu gabeko azpiegitura erraldoi bat planeatzea, eta AHT (Abiadura Handiko Trena) litza-teke azpiegitura erraldoien eta erreallitatearekin kontatu gabeko 'monstruo' bat",* gaineratzen du sindikatuak.

ZERAIN. Bisitari ugari izan ditu Zerainek 1994ko irailean proiektu turistikoa martxan jarri zuenetik. Aurtent, eta uztailean bitarteko datuak kontutan hartuta, 7.583 bisitari pasa dira Herri Museo Etnografikoa, Kartzela, Larraondoko Zerrategia, Parrokia, San Blas Baseliza eta abarretik. Horrekin

batera, aipatu, Tellerine Nekazalturismoa duela gutxi ireki dutela Zerainen.

ZUMALAKARREGI

MUSEOA esperientzia berritzaile batean abiatu da. Euskadi Irratiarekin elkaturik, gure historiaren nondik norakoen berri ematen du Xabier Ke-rejetak. Zumalakarregiren garaian bizi ziren pertsonaien bitartez (XVIII-XIX. mendeak) Euskal Herriarentzat erabakiorra izan zen bilakaera azaltzen da. Hau guztia, abendura bitartean, astelehenero, arratsaldeko hirurak eta laurdenetan.

GAINTZAKO DANTZA

TXAPELKETA. Irailaren 30ean ospatu zen dantza askatuko txapelketan maila haundiko dantzariak hartu zuten parte. Izena 15 bikotek eman bazuten ere, 10ek bakarrik izan zuten txapelketan aurkezteko aukera. Irabazleak Aitzol Ena eta Josune Sarriegi izan ziren; bigarrenak berriz Eduardo Muruamendiaraz eta Amaia Agirre bergararrak (Seguran Euskadiko Txapelketa irabazi zuen bikotea). Goierri-tarrik ere izan zen lehian, Joseba eta Ane Suarez ordiziarrek hain zuzen ere.

ATAUN TXAPELDUN.

Lazkaon jokatu berri den nesken futbol aretoko txapelketan Ataun izan dugu irabazle, Ordiziari 3-0 irabazi ondoren. Txapelketa honetan Lazkaok eta Legorretak ere hartu dute parte. Orain, ea denboraldiari txukun heltzen dien.

INAZIO ARAÑA 'AXIO'

rugbilariak agur esan dio rugbiari. Iazko denboraldia amaitzearekin batera, 20 urteko lana atzean utzi du ordiziarrek. Atletico San Sebastianen bi urte egin zituen, Estatu mailan jokatzeko ilusioa beteaz. Baina kuriositatez, Ordizia Lehenengo Mailara igo zen bi urte geroago. Estatuko selekzioarekin ere hainbat partidu jokatu da 'Axio'. Aurrerantzean zuzendaritza edo arlo teknikoan lan egiteko asmoz dago.

In illo tempore, Santa Fe

Gaintzako dorrearen gorenetik soinu dagi ezkilak, San Migel biharamonean. Zaldibia-rena da txanda, Santa Feren eskutik. Ardi zaharren aspilak, hoberenak janda, gaztaina zildokak ditu erakusgai. Dituenari, adarretara botako dio nagusiak eskuineko eskua, eta ezkerrekin bizkarra lisatuko, aspilekoak zenbateraino egin dion on ikusi ahal izateko. Ardiak elkarri begira daude, jan izanaz damu bailiran, gizenenak dauka-eta lepoa labanatik hurbilen.

"Aida, Gorri!; aida, Zuri!" itzaintzan dabil maiorazkoa, labe-suari egurra garraio, Santa Fetako opil gozoaren peskisan. Ore-mahaia tontorka du amandreak, leamirik finenez harrotuta. Donostiako osabak, bertan jaten dituenek aparte, hiru bat beharko ditu Irutxuloko lagunei txakolinaren truke banatzeko: "Hau duk ogia hau, Pello!". Aitonak biloba du lagun, ganbarako pertz beltza ingura dezan, mondejuak egosteko. "Kontuz, aitona, laratzean trabatu gabe". Neskameak zabaldu du Santa Fe aurreko azken lisiba, Arandiko oihaletan, Errakandiko putzuan jota.

Amak bota ditu aurremantala eta buruko painelua, kendu ditu albarkak. Badoa salto batean kaleraino, izebak arestian atera dituen porruentzat nahasgaiak ekartzera. Nagusi gazteak joan den asteazkenean utzi zuen enkargatuta zahagi-ardoa,



Lauen artean 357 urte gazte.

Arosteginean. Mutikoak begi sorginekin begirutzen dio Santa Fe egunerako gordean daukan behi-larreari. Horrela, goiz janaraziko die ijarak betean, tiropitxoi edo autotxoketarako azkar libra dadin.

Freskaderetan pertzak lurrina dariela, mondeju-usaina hegan doa eguratsean barrera, eta jendea barreiatu da elizpidean zehar, bueltako kanpaien aztoragarri. Gizonetakoak traje beltza estreinatu dute gaur; eta emakumezkoek kortze berriak jantzi. Eliz atarian bildu dira agintariak eta kanpoan bizi diren herritar asko, apaiz meza-emailea barne. Artzainak heldu dira azkena. "Santa Fides, ora pro nobis" ekin dio sermolariak, eta arto-barrunak ganbaratu eta sagarrak biltzeko egin duen giro ona eskertuko dio gero gure Santari.

Aureskuaren txanda da orain. Martin Errotako doa puntako. Martxelina apar-

tatu du sailetik sokarako; penatxo du Gabinak bera hautatu ez izana. Eskerrak pilotarien artean ere baduen bat begiz joa! Gabinaren bihotza pilota bezain jauzlari dabil, noiz irri eta noiz kopetilun ez dakiela.

Prantxes Txikiarenak ziren, konparaziorik gabe, bertsozko onenak, batentzat. Ez pentsa puska handiegirik kendu dionik Zubeltzuri, bigarrenaren ustez. Gonbidatuak eseri dira mahaian, zaharrena mahaiburuko dela. Onenez aurrera serbituko ditu etxeoandreak: mondeju, oilasko, arrozkonletxe eta patar, ilunak bertan harrapatu arte.

Ttun-ttun soinu zen aurrea. Jazpana entzuten da orain hegi, muino eta gain guztietatik. Baltsean hasi dira gazteak herriko plazan. Ez dabilzanak geroko esperantzan daude begira, neska-laguntze lanetarako bidea prantatzen, eta keinurik izanez gero adi.

Kalejirarekin amaitu dira gaurko "patri-filioak". Hamabi zaharra hasi da tabernetan erronda egiten, ordaindu nahiezta dabilzanek aginte-makila jaso eta muturjoka hastera doazenei alondigako giltzak erakutsiz. Kanpandorreak danda!... danda!... ekin dio. Hamabiak puntuan. Berriro Ibargurengo oilarrak kukurruku jo arte lo geratu da Zaldibia.

 **Rufino Iraola Garmendia**



**Zaldibiko herriak herriko
jaietan parte hartzeko gonbi-
tea luzatzen dizue.**

ONDO PASA!



ETXABE
AUTOBUSAK

Eskurtsio eta ospakizunetarako zerbitzuak. 55 edo 25 eserlekuko autobusak

☎ 88 41 05

Mugikorra: (908) 676282 ZALDIBIA

● Urriak 5, osteguna:

19:00etan: Santafeei hasiera emateko, herriko txaranga, trikitilariak ibiliko dira kalea girotuz. Ordu berean, buruhandien irteera.

20:00etan: Mondejuak dastatzeko aukera, plazan.

22:30ean: Gailurrerantz Kirol Elkarteko Pilota eskolak antolaturiko pala partiduak Resti frontoian.

23:30ean: Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia.

● Urriak 6, ostirala:

11:00etan: Meza Nagusia herriko koruaren laguntzarekin.

11:45ean: Txalaparta saioa. Ondoren J.R. Elortza, I. Eguren eta J. Munduate bertsolariak.

12:30ean: Iztueta Dantza Taldearen emanaldia.

16:00etan: Zaldibiko herritarren lehen Auto-Krosa.


17:00etan: Herri kirolak plazan.

18:30ean: Pilota partiduak.

23:30ean: Dantzaldia Izotz taldearekin. Dantzaldiaren atsedendian Play Back lehiaketa.

● Urriak 7, larunbata:

11:30ean: Gipuzkoako nesken txapelketako areto futboleko partidua: Zaldibia-Zestoa.



12:00etan: Kuadrilen irteera Koskola txarangarekin.

14:00etan: Bazkaria herriko plazan. Ondoren, plazan bertan eta txarangaren laguntzarekin kuadrilen arteko jokuak.

23:30ean: Drindotsekin dantzaldia. Musika amaitzean, zezen mekanikoa, dantza txapelketa eta txokolate jana izango dira.

● Urriak 8, igandea:

10:00etan: Diana Tolosako dultzaineroekin.

10:30ean: Haurren joku eta jolasak herriko plazan.

11:00etan: Meza Nagusia, herriko

koruaren laguntzarekin.

12:00etan: Zaldibiko Bertso Eskolako emanaldia.

12:30ean: Perratokian behi bat pertratuko da.

12:30ean: Haurrentzat abereen festa. Ondoren kalejira buruhandi eta Tolosako dultzaineroekin.

16:00etan: Haurren festa: jolasak, mozzorroak, merienda...

17:30ean: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.

18:30ean: Pilota partiduak.

23:30etan: Turruttak taldearekin dantzaldia.

PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA

Tfnoa: 88 28 68

**ZUBI
ONDO
TABERNA**

☎ 88 28 76

ZALDIBIA

txaro

GARBIGAIENDA - USAINDEGIA
OPARIAK - ESKOLAKO MATERIALA
AZTIA - BERRI, 1
ZALDIBIA

☎ 16 08 76

**NAZABAL
ERRETEGIA**

Otordu goxoak janez
lagunarteko giroa

Lurdes-enea ☎ 887146 ZALDIBIA

MILA ARRAINDEGIA

Zaldibitarak zorionduz
Sta. Fe festa hauetan

☎ 88 90 84

Sta. Fe Kalea

ZALDIBIA

● Urriak 10, asteartea:

10:00etan: Herriko gazteek eskolako murala margotuko dute.

12:00etan: Sukaldaritza txapelketa. Paella, almondigak eta postrea prestatu beharko dira.

14:00etan: Lehiaketan aurkeztutako menuekin bazkaria plazan.

17:00etan: Herriko gazteen eskutik pentatloia.


18.00etan: Gaztetxeei buruzko bideo emanaldia plazan.

19:00etan: Eskolako muralaren aurkezpena. Ondoren poteo musikala.

21:00etan: Bokadiloekin afaria plazan.

23:00etan: Gozategi anaiak.

Oharra: Festa egun hau Zaldibiko Gazte Asanbladak antolatu du.



23:30ean: Dantzaldia Izadi musika taldearen eskutik.
Oharra: Mozorro gaua denez, mozzorroturik atera.

01:00etan: Amnistiaren Aldeko kalejira.

Oharra: Jai egun hau Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Zaldibiko Gazte Asanbladak eta Jarrai taldeek antolatu dute.

● Urriak 12, osteguna:

19:00etan: Mondejuaren entierroa. Entierroan parte hartzeko lutoz jantzita azaldu.

Argazki erakusketa: Alfredo Feliu Corcueraren 'Euskal tradizioaren jaiak' argazki erakusketa urriaren 12ra arte egongo da zabalik Kultur Etxean. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

● Urriak 11, asteazkena:

18:00etan: Bideo emanaldia plazan. Ondoren herriko gazteek eginiko antzerkia Herri Antzokian. Bukaeran poteo musikala.



JOXEPANE
HERRI OSTATUA

★ Taberna
★ Jatetxea
Albisu Etxea ZALDIBIA

INAKI ERAUSKIN
HARATEGIA
Mondeju ederrak!

☎ 88 30 87
Santa Fe Kalea ZALDIBIA

ILLATI
TABERNA

Mondeju, pintxo eta
ogitartekotan berezitasuna
Festa onak pasa
Santa Fe ☎ 88 31 05 ZALDIBIA

ARRESE arraindegia



☎ 16 08 48 Leku Eder,2
Etxekoa: 88 76 24 ZALDIBIA

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 40 57 Tfona: 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

ZALDIBIA

HB: "Udalaren kudeaketari eskua hartzen ari gara"

Herri Batasunak lehen hiru hilabeteotako udal-gestioaren balantzea eskaini zuen irailaren 29ean, jendarean, eta, aldi berean, dagokion txostena ere plazaratu du. Batzordeak nola banaturik dauden adierazteaz batera, ZUTi hauetakoren bat eskainiz HB-k izan duen disposizio ona eta ZUTen-gandik jaso zuen ezezkoa markatzen ditu.

Bestalde, zinegotzien gastuak murriztea erabaki du HB-k. Lehen, baikoitzak 22na mila pezeta jasotzen zituen eta orain 15na jasoko dituzte. Alkateak bere lanean galtzen dituen orduen alderako 40.000 pezeta ordainduko dizkio Zaldibiko Udalak alkatearen lantokiari. Lehengo gastuekin konparatuta, 288.500etik (178.000, zinegotziena + 110.500, alkatearena) 175.000 pezetara jaitsi dira.

Herrian izan diren detentuei eskainitako elkartasun eta diru-laguntzen berri ematen du, eskolako zubiaren konponketa eta Karreraneako obren berri bezalaxe. Era berean, Bilore enpresak ibaira isuritako hondakinen erruz amuarrain asko galdu dela eta, gestio asko egin ditu Udalak berriro horrelakorik gerta ez dadin.

Gogoz kontra egin behar izan den ur-mozketarengatik barkamena eskatzen die herritarrei, eta problema horri zuztarretik heltzeko asmoa azaldu ere bai. Azkenik, festa on batzuk opa dizkigu guztioi.

Udalaren egoera

HBren ustez, ZUTek egoera ekonomiko txarrean utzi du Udala, "aurrezte kapazitatea hutsa delako". Inbertsiontarako ez omen da dirurik gelditzen. Gainera beste zulo batzuk ere ba omen: "Etxebizitza sozialak eraikitzeko ekintzan milioi bat pasako zorra dago oraindik bertako urbanizazio lanetako gorabeheretan".

Iztuetaren omenaldiko gastuekin ere ez dago konforme HB. Batez ere, plazako eskulturaren 3 milioiko faktura gehigizkoa iruditzen zaio. Zaldibiak beste beharrik ez ote duen galdeztzen du HB-k.

"ZUTen panfletoa destruktiboa da"

Oraindik orain ZUTek plazaratu zuen informazio-orriari erantzun nahi izan dio HB-k, eta puntuz-puntu erantzun ere. Langabetuak kontratatzeari dagokionez, ZUTek ez zeukala inolako baremorik eta HB-k orain dela sei/zazpi urte erabiltzen zuena aplikatu duela esaten du. Eta "panfletoa" kaleratu aurretik ba omen zekien ZUTek horren berri. Portzierto, INEMen bidez hartu diren 8 langileek burutuko dituzten lanak hauek dira: Auntsitako zubia, Zubietakoa, Karreranea eta Kanpain, Albitxerri ondoko iturria, Olaldeko Parkea, Eskolako zubia...

Tabernariak txoznarik ez jartzeko egindako eskariari eta ZUTi erantzuteko argudio hauek erabiltzen ditu: ez du konpetentzia deslealtzat hartzen, txoznetatik ateratako irabaziak ez baitira norbere poltsikorako: Gestoraren

kasuan, preso eta familiei laguntzeko; Jarrairi dagokionez, erakundeari laguntzeko, instituzioetatik ez dute-eta laguntzarik jasotzen; eta Gazte Asanbladaren kasuan, herritar guztiek disfrutatzen dituzten ikuskizunak antolatzeko. Bestalde, iaz hiru txozna jarri omen ziren. Azkenik, jai-giroa osatzen laguntzen omen dute.

Pintadak kentzea alkatearena ez baino HBren erabakia izan omen da. Beste espresabideak ukatzen direnean justifika omen daitezke pintadak, baina hori ez omen da Zaldibiko kasua. Puntu honi buruz debatea zabaldu nahi luke HB-k.

ZUTen agurra

"Berriro ere Santa Fe jaien atarian aurkitzen gara, eta egun seinlatu hauetan bakea eta zoriona opa dizkizue ZUTek zaldibitar guztioi. Lanean segitzen dugu eta, agintean egon, oposizioan egon, guztiz konstruktiboak izan nahi genuke. Udala hartu genuenean baino askoz ere patrimonio handiagoa baldin badu Zaldibiak gaur, bide horri eusten saiatuko gara. Era berean, pertsona guztienganako begirune eta instituzioetiko errespeto demokratikoan oinarrituriko bakea eta askatasuna aldarrikatzen ditu ZUTek. Berriro ere laster izango gara zuekin, bienbitartean ondo pasa guztiok, eta aurtun etorri ezin zaretenok datorren urtean hemen izatea desio dugu".

 **Rufino Iraola**

iÑABE

ERAIKUNTZAK S. A.

Mota guztietako eraikuntzak

Sanperio, 2

☎ 883829 - 882875

ORDIZIA

GARMENDIA

ELEKTRAGAILUAK



Leku Eder Kalea
ZALDIBIA

☎ 881350

Udaletxeko batzordeen eraketa berria

Nahiko geldi bada ere, Udala bere eguneroko dinamikan sartzen hasia da. Honela 1999rarte iraungo duen legealdiak 6 batzorde informatzaile izango ditu, orainarte baino bat gehiago. Seigarren hau Eragintza eta Garapen Ekonomikoari zuzendutako batzordea da.

Gobernu Batzordean hirukoa osatzen duten alderdietako zinegotziak daude: EAJko bi, EAKo beste bi eta PSEko bakarra. Batzorde honen pean 6 batzorde informatzaile ageri zaizkigu:

- Ogasun eta Administrazio batzordea: lehendakari gisa alkatea bera dago, Juanbi Erauskin (EAJ).

- Zerbitzu batzordea: Jesus Mari Aldaz (EAJ) da batzorde honen arduradun nagusia.

- Eragintza eta Garapen Ekonomikorako batzordea: lehendakaria Miren Gueembe (EAJ) da.

- Hirigintza batzordea: honen arduradun nagusia Jose Arizmendi (EA) da.

- Kultura batzordea: lehendakaria Jesus Mari Lariz (EA) da. Dakizuenek talde hau batez ere, festa, kirola, hezkuntza, euskara, gazteria eta azoka be-



zalako gaiez aritzen da.

- Ongizate batzordea: Jose Manuel Ros (PSE) zinegotzia arduratzen da batzorde honetaz.

Hemendik aurrera, beraz, batzordeon esku geratzen da herriaz kezkatzeko ardura. Ongi konpon bitez batzordekideak euren artean eta hartutako erabakiak herritarron mesederako izan daitezela.

Kimetz-en ekintzak

Orain bi urte Ordizian sortutako emakumeen Kultur Elkartea dugu Kimetz eta beti bezala hainbat ekintza antolatu dituzte urria, azaroa eta abendurako. Hasieran emakumez osatutako taldea bazen ere, gaur egun gizonezkoak ere

animatzen hasiak omen dira, 37 bazkideetatik 2 halakoak baitira.

Emakumeari zuzendutako ekitaldi kulturalak urriak zirela eta berau sustatzeko asmoz sortu zen Kimetz. Orainarte osasun hitzaldi, hitzaldi kulturalak, eskulanak, tertulia literarioak... antolatu badi- tuzte, hemendik aurrera ere ekintzen eskaintza oparoa izango da: gizarte harremanetan sortzen

diren arazo egoerei aurre egiten jakiteko ikastaroak, eskulanean tailerrak, literatura tertulia gehiago, lore lehorren tailerra, kuadro bat begiratzen ikasi eta gozogintza eta oinarritzko sukaldaritza- ri buruzko ikastaroak. Guztiok gaian adituak direnek emango dituzte.

Zozketa

Ordiziako Rugby Elkartearen aldeko zozketan zenbaki saritua 4.458 izan da. Saria badakizu, urtero bezala euskal festetako azoka berezian rugbykoek agertu zuten txerri eder hori. Saria ego- kitu zaiona jar dadila harremanetan rugby taldeko edozeinekin, txerria zain dauka eta.

 Aitor Calvillo Zurutuza


construcciones
SUQUIA, S.A.

☎ 88 58 00 - 04 Faxe: 88 88 50 Txindokipe etxea ZALDIBIA

GANBO, S.A.


ANDERE
lenceria

☎ 88 35 12 - 16 Elbarrena Auzoa, 2
Faxe: 88 35 12 ZALDIBIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA



* Mikropigmentazioa: bekain eta ezpainen makilaje iraunkorra.

* Kontsulta medikua: gizentasuna, barizeak, liposukzioa eta zirujia estetikoak.

* Kiromasaia: kirol eta terapeutikoa.

J.M. Barandiaran Plaza, 3

Sagastigutia parkea Donostiako Urgulen pareko

Orain dela bi urte hasi ziren Sagastigutia parkeko eraikuntza lanak eta dagoeneko oso aurreratuak daude. Parke hau herrian bertan dugu eta bertara Elizaren atzetik, Ezkiaga auzotik edo Bista Alaitik irits gitezke. Izena bertako lur zati batetik jaso du eta bertan baserri giroa azaltzea da helburuetako bat, behintzat horretan oinarritu dira bertako murruxka, atsedeen toki, banku, bidetxurretako gradak eta beste zenbait gauza egiterakoan. Parkeak 40 zuhaitz espezie ezberdin jasoko ditu (guztiak bertan zeuden) eta parkeari aberastasuna emateko balio dute.

Sagastigutiak Donostiako Urgulekin antza du. Hain haundia ez da baina antzeko egitura dute: bide eta bidetxur ugari sarea dute, beraz bide ezberdinez osatuko dira, Beasaingo parkean nahi duzuen bidea aukeratzu ur biltegi irits zaitezke. Urguleko parkeak gaztelu giroa jasotzen du eta zenbait puntutan polborategiak edo kainoiak ditu. Sagastigutiak berriaz, atsedendiko zenbait lekutan baserri munduari loturiko aintzinako tresna ezberdinak izango ditu: gurdia, lera, aintzinako zerategi bat, egurrikatza lortzeko erabiltzen zen egur pilatua, belar-meta edo mendiko oilategi bat. Ur biltegiaren atzealdean "norteko" haritzen artean egurrezko mahai eta bankuak egongo dira erretegi baten ondoan, eta atsedeen bila joaten direnentzat hegoalderuntz zuzenduriko begiratoki bat dago banku eta guzti.

Parke hau ibiltzeko toki polit bat izango da gazte zein zaharrentzat eta egun pasa etxetik kanpo bazkaldu nahi dutenek bertan leku aproposa izango dute. Parkea datorren urte hasierarako amaitua egongo da eta guztiontzat atsedentoki atsegina izango da.

Udazken kulturala

Udazkenarekin batera urtero bezala Udazken Kulturala iristen da. Urriaren 15etik 29ra bitartean ospatuko da aurtengo eta ikuskizun ugari izango da bai gazte zein zaharrentzat. Haurrentzako

18-GOIERRITARRA



Lanak luze joko dute oraindik, baina zenbait mahai jarri dute.

ekintzei dagokienez ez dira faltako ez pailazo, ez erraldoi eta buruhaundirik. Hauetaz gain eskulan tailerrak eta irakurketa suspertzeko emanaldia ere izango dira. Antzerki eta musika emanaldiei dagokienez, abenduan irekitako Usurbe Antzokia areto garrantzitsu bihurtuko da, antzerkia eta musika izango ditugu bertan eta Gaztelubide elkarteak eskeinitako opera ere bertan izango da. Hala ere kaleak ekitaldi ugari jasoko ditu, bertan antzerki, dantza eta musika saio ugari eskeiniko dira. Bestalde aipatu, kafe-antzerkia eta kafe-kontzertuak, hauek azken urtetan herriarren artean arrakasta handia izan baitute. Andra Mari Zerutarraren Parrokian ere kontzertu ugari eskeiniko dira eta dantzari dagokionez Ingalaterran egon berri den Aurtzaka Dantza Taldeak folklore jaialdia eskeiniko du.

Lehiaketei dagokienez, aipatu Aire Zabaleko Pintura lehiaketa eta Argazki Rallya, herria artistaz beteko da egun batez eta hauen lanak antolaturiko erakusketan ikusi ahal izango dira. Beasaingo Paperen 4. alea aurkeztuko du Josetxo Zufiaurrek: 'Beasaingo kaleizenen historia'.

Honez gain, urriaren 17an 18:00etan, ekitaldi berezi bat egingo da Katea auzoan: 'Katea'ko katea jarrita zegoen harri originaletan garbitu eta berjarriak izan ondoren, plaka jarriko da bertan.

Hau guztia errepasotxo bat besterik ez da, horregatik aipaturikoaz zehaz-

tasunak nahi dituenak agendan aurki ditzake.

Ai Geala irratsaioa

Ai Geala euskara taldeak izen bereko irratsaioa berriro ere aiereratuko du larunbat goizero Segura Irratiaren bidez. Lehenengo denboraldiko arrakasta ikusi ondoren, ordubeteko irratsaioa izatetik hiru ordutakoa izatera pasako da.

Aurtengo berrikuntza aipagarriena Alkatizketa izango da, larunbatero Goierri bailarako gaietaz hitz egiteko aukera izango dute. Saioan asteko gai garrantzitsuenaz hitz egingo da eta gonbidatu ugari elkarrizketatuko dira. Larunbatean adibidez, Jose Mari Setien izango da elkarrizketatua. Iaz bezala, eguraldiaren pronostikoa entzun ahal izango duzue, horretarako puntu ezberdinetako egoera klimatologikoaren berri jasoko da zuzenean. Guztientzat lagungarria izaten da gai ezberdinetako jakitunek zenbait gauza aipatzea, hori dela eta Ai Geala irratsaioan mediku, lorazain, historigile, soziologo eta abarrek beraien kontseilu eta jakituriak eskeiniko dituzte.

Eta gutzi hori entzun ondoren, irratsaioa bukatzeko tripontzien lehiaketa izango da. 4 lagunentzako afaria lor daiteke lehiaketan, beraz bapo afaldu nahi baduzu galdera batzuk erantzun beharko dituzu. Guzti hori datorren larunbatetik aurrera gertatuko da. Beraz badakizu, goizeko 10etan piztu irratia 89.2an, ez zara damutuko eta.

Haur abesbatza

7-9 urte bitarteko umeen abesbatza sortu nahi da. Entseiuak Musika Eskolan izango dira astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 20:00etara. Abesbatzan parte hartu nahi duena azal dadila urriaren 10ean Musika Eskolara, arratsaldeko 7etan, ondo pasatzeko aukera izango du eta.

 **Izaskun Salazar**

Euskara ikasi, landu eta erabiltzeko kanpainak

Guztiontzat dago aukera! Guraso, irakasle eta umeentzat euskararen inguruan hainbat ekintza antolatu dira herrian.

Gurasoentzat

Famili giroa euskalduntzeko martxan daude aurtengo euskara ikastaroak. Hauek, Maizpide eta AEKn, Udala, S. Prudentzio eskola eta S. Benito ikastolaRen laguntzaz. Ikastaroak, 0 eta 15 urte bitarteko haurrak dituzten Lazkaoko gurasoentzat dira. Eskolak astelehenetik ostegunera izango dira, goizez, eguerdiz edo iluntzez. Kostua hiruhilabeteko 3.000 pezetakoa da eta matrikula zabalik dago urriaren 6ra arte, ikastolan edo eskolan.

Irakasleentzat

Irakasleentzat hizkuntza lan-tresna da. Irakasleen hizkuntza ikasleentzat eredu denez, ez bakarria baina bai oso garrantzitsua, beren ihardunean izaten duten hainbat kezka argitzeko eta trebatzeko ikastaroak antolatu dira, EGA edo antzeko tituluren bat duten maisu-maistrentzat.

San Benito ikastolako 33 bat irakasle ari dira jada lanean, bi taldeetan banatu eta 40 orduko ikastaroan: fonetika/ortografia, lexikogintza, deklinabidea, aditza, idazmena eta abar, Euskaltzaindiaren azken erabakien arabera



Irakasleek ere ikastaro bat egin dute.

lantzen.

Goierriko beste hainbat herritako ikastetxe gehiago ere kanpainarekin interesatuta agertu dira eta talde gehiago sortu eta lanean hastear daude.

Euskaldunen kopurua handitzea garrantzitsua bada ere, kalitatea ezin ahaztu dugunez, bedi kanpaina berri hau euskara zuzen eta jatorraren mesedetan.

Umeentzat

1993an antolatu ziren larunbatetan umeentzat tailerrak lehenengoz eta geroztik, diru-arazoak bitarteko, ezin

izan dira berriz ere martxan jarri. Aurtengo ordea, abiatzeko gara CAF enpresaren diru-laguntzari esker.

Antolaketa lanak Goierriko Euskal Eskolak hartu ditu bere gain oraingoan ere eta begirale bezala, 93an aritutako gazte talde bat eta BBB eta UBiko beste batzuk arituko dira.

"Jolas, plis-plast" tailerretan eskolaurreko eta hasiera zikloko umeek, euskal giro jatorrean ondo pasatzeko aukera izango dute larunbateetan.

 Mari Joxe Madariaga

IKASTEK AKADEMIA 95-96 IKASTURTEA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Irakasleko trebatua
- Kalitate eta profesionaltasuna

Informazioa: ☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5 BEASAIN

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnr. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) BEASAIN
Tfnoa.: 16 11 05

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, C. B.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

Udazkeneko ekintzak ate joka

Gogoz ekin diogu aurten udazkenari idiazabalda-
rrak. Bai horixe!

Irailaren 23an hasi gi-
nen argazkian ageri den
gazte bazkari bikain har-
tan parte hartuz. 60 bat
laguneko taldea elkartu
zen mahai inguruan eta
soinu, bertso eta abesti ar-
tean Gazte Asanbladaren
helburua borobil bete zen.
Herriko gazte guztiak
urreratu ez baziren ere, gi-
ro aparta sortzeko gai izan
ziren. Eta hori gutxi balitz
azkenean, herrian zehar
kalejira alai batekin eman zioten egu-
nari amaiera.

Datorrena oraindik arrakastatsua-
goa izango delakoan daude antolatzaile-
ak, baina aurtengo maila mantentzen
bada oso gustora izango omen dira.

Kultur komisioa

Kultur komisioak bestalde, urtero be-
zala, oporrek amaitzean jendea norae-
zean aurki ez dadin eskulan ikastaro
ugari antolatu ditu. Hauetxek izango
lirateke zenbait aukera: zeramika, taila,



60 bat lagun bildu ziren Gazte Asanbladak antolatutako bazkarian.

saskigintza, harilanak, telargintza,
marrazkigintza...

Hauezaz gain, gorputza zaindu eta
egoera fisikoa hobetu nahi duenari ere
aukera bikaina eskeintzen dio Udaleko
Kultur Batzordeak, izan ere ordutegi
ezberdinekin hamaika aukera berezi-
rekin soinketa edo gimnasia saioak
emango baitira Zelaako kiroldegian.

Gazte, heldu eta jubilatuentzat ere
egokiak izango dira. Nola eskulan hala
soinketari buruzko informazio gehiago
nahi izango bazenu Kultur Etxera, Uda-

letxera edo Kiroldegira
joan beharko zinateke.

Zirika irratia

Zirika irratia ere ez da ixi-
lik egoteko jaioa, beraz,
lerro hauen bidez datorren
ikasturte honetako lehen
saioa hilaren 7an izango
dela esatera dator. Betiko
moduan, bitxikeria, umo-
re eta musikaz beteriko
saioak eskeintzen saiatu-
ko omen da, ondorioz,
FM-ko 99.3an elkarrekin
topo egingo duzue.

Mendizaleen festa

Mendi Elkarteak bestalde, urteroko
ekintza sortaren barruan, aurtengo gas-
tronomi lehiaketa bat ere antolatu du.
Berau urriaren 12an izango da Mendi-
zaleen Festa dela eta. Beraz parte hartu
nahi duenak mendi saileko kideren bati
eman beharko dio izena urriaren 10a
baino lehen. Partehartzaileei bide ba-
tez, baldintzen berri emango zaie.

 Aloña Galarraga

ORMAIZTEGI

San Migel jai egunean giro ederra

Irailaren azken larunbatean urteroko
ohiturari jarraituz San Migel festa egu-
na ospatu zen. Eguraldiak lagundu ez
bazuen ere, giro ederra izan genuen
festa egun horretan.

Goizean toka txapelketa jokatu zen.
Bertan irabazlea Jose M. Goikoetxea
izan zen, eta bigarren Jose A. Lasa
gelditu zen.

Eguerdirako II. Harrikalari txapel-
keta antolatua bazegoen ere, eguraldi
txarra zela eta, atzeratu beharrean aur-
kitu ziren.

Arratsaldeko 4etan jokatu zen IV.
San Migel mus txapelketan partaidetza
ezin hobea izan zen. 18 bikotek hartu
zuten parte eta irabazleak Jose Mujika
20-GOIERRITARRA

eta Jon Ezeolaza izan ziren.

Ondoren umeentzako jokoak, poteo
herrikoia eta herri afaria izan ziren.
Giro ederrean burutu zen herri afaria.
Urtero bezala afaria prestatzen ibili zen
sukaldari taldeari berriz ere eskerrik
beroena bidali nahi diogu horrenbes-
terentzako afaria prestatzeak lan izuga-
rria eskatzen du eta.

Pala txapelketa

III. San Andres pala txapelketa aurrera
doa. Ondoren datorren egunetan joka-
tuko diren partiduak dituzue: **Urriaren
8an:** Gari-Koldo Lasa-Muruaren aur-
ka; eta Patxi-Txarli Soto-Karteroneren

aurka. **Urriaren 9an:** Murua-Armendi
Txurtxil- Alexen aurka; eta Goros-
Apaolaza Ahoa-Sañaren aurka.
Urriaren 12an: Izagirre-Urdangarin
Olaran anaien aurka; eta Kanpo-Lasa
Plagaron anaien aurka. **Urriaren
15ean:** Manolo-Agustin Gari-Koldo-
ren aurka; eta Mercero-Azkarate Pa-
txi-Txarliren aurka. **Urriaren 16an:**
Soto-Karterone Murua-Armendiren
aurka; eta Lasa-Murua Goros-Apao-
lazaren aurka. Eta urriaren **19an:**
Txurtxil-Alex Izagirre-Urdangarin
aurka; eta Ahoa-Saña Kanpos-Lasaren
aurka.

 Aitziber Murua

Sardinzar denboraldia "Antonkalene"n



Dendako mostradore gainean dauden sardinzarrak 40 pezetan saltzen dira, eta nahi izanez gero ederki asko preparatzen ditu Bittorrek.

Azpaotza aldeko Anton izeneko bat kalerara ezkontzetik etor dakioke tabernadenda honi "Antonkalene" izena. Bittor Agirre, bertako nagusiak dioenez bere izebek hartu omen zuten taberna orain 90en bat urte. Makina bat jende gogoratzen du oraindik, Bittor eta hauen aurretik taberna izan zuen "Maria Rubia" bere izeba.

"Antonkalene" beheko barrioko taberna ofiziala izateaz gain herriko tabernarik autentikoena ere bada. Denetik eta leku gutxitan ikus daitezkeen gauzak aurki daitezke oraindik bertan. Sardinzarrak dira horren adibide bat. Garai bateko bijili egunetako elikagai nagusia. Hauek Bittorren akuerdo guztian ekarri dituzte, beti ere irailaren amaieraldetik gabonak ondorenera. Dagoneko 2. kaja hasia dute, eta denboraldiko dozena erdiren bat joaten dira. Orain lehen baino gutxiago. Jende edadetuari gustatzen zaizkio batez ere. "Makiñat merienda eindakoa dek hemen jendea. Pako Gereñu, Antonio Alustiza, ta haueke sardiña zarrak noiz allauko zai eoteittuk".

Prestaketak ez du sekreto berezirik, periodiko paperean bilduta golpeka, edota garai batean bezala atearen atzeko zirritzuarekin joko eginez eskamak kendu. Jan berriz, gordinik baratzuria eta olio botata, prejituta, tortilan, etab.

Sardinzarrez gain, Antokaleneko pipar txiki janak, espuelak, eta tertuliak ere famatuak dira. "Balentzegi" etxea

bera bezala, establezimendua eta bertako nagusia ere ez dira edonon aurkitzen diren horietakoak. Zeinek ez du ikusi Bittor gaueko hamarrak aldera beheko panaderira ogi bila joaten, norbaiti pipar txikiak edota arrautza pare bat urdaiazpiko edo txorixo mutur batekin preparatzeko. Segurako eta inguruko hamaika istori eta bitxikeria jakiteaz gain, umore oneko gizona, konbertsazio atseginak emateko, adarra jotzeko, edota ardoa ateratzeko pronto egoten dena.

Soinketa

Udaletxeak antolatuta eta Imanol Etxe-

berria beasaindarraren gidaritzapean urriaren 3an hasi ziren maiatzerarte iraungo duten soinketa saioak. Dagoneko 50 emakume inguruk eman dute izena. Astearte eta ostegunetan arituko dira frontoian, bi txandatan momentuz, 6,30etatik 7,30etara bata eta 7,45etatik 8,45etara bestea. Matrikula 5.000 pezetakoa da, amaieran berreskuragarria, eta hilero 1.500 pezeta inguru ordaindu beharko da.

Eskulanak

Hau ere Udaletxeak antolatuta eta Zegamako Iñaxi Urretak zuzendua, 4. aldiz, 30 orduko 4 pintura ikastaro burutuko dira. Gabonak arte esmaltea eta beira ere landu nahi dira, eta ondoren gantxilloa, bordatua... ere bai. Ikastaroak astelehenetan 14,30etatik 17,00etara eta asteazkenetan 17,00etatik 19,30etara izango dira. Ikastaro bakoitza 1.500 pezeta kostako da.

Nafarroa Oinezera autobusa

Elorri Kultur Elkartek autobusa antolatu du urriaren 15ean Tuteran izango den Nafarroa Oinezarako. Autobus bakarra izango da eta izena emateko azken eguna asteazkenean, hilaren 11n, Elorri Tabernan. Irteera goizeko 8:30ean herriko plazatik. Ikasleak eta langabeak 700 pezeta eta gainerakoak 1.200.

✍ Joseba Telleria



Iazko eskulan ikastaroetan parte hartu zuten emakumeetako batzuk San Juanetarako jarritako erakusketa kentzen.

Urtaro berria, ikusgai berriak

Argazki lehiaketa

Herriko bigarren argazki lehiaketa datorren igandean ospatuko da. Argazkizale guztiek parte hartu dezakezue lehiaketa honetan, baina gai bakoitzean argazki bat aurkeztu beharko duzue. Gaiak honako hauek izango dira: baserriko bizitza, Olaberria Goierriko balkoia, ehiza, Errekalde auzoa, eliza, eta azkenik gai librea.

Goizeko 8:30tik 10:30era karreteak banatuko dira Kultur Etxean eta izenematea lehiaketaren egun berean izango da. Izenematea 1.000 pzta. kostako da, baina lehiaketa ondoren bazkari eder bat nahi baduzue, prezioa 3.000 pezetakoa izango da (izenematea barne). Karreteak 12:30etik 14:00ak bitartean aurkeztu beharko dira.

Sariak honako hauek izango dira: lehenak 25.000 pezeta eta trofeoa ja-

soko du; bigarrenak 15.000 pzta. eta trofeoa; eta hirugarrenak 10.000 pzta. eta trofeoa. Lehenengo herritarrentzat 10.000 pzta. eta trofeoa daude sari modura. Antolatzaileen intereseko suertatzen diren diapositibei, 3.000 pezetako akzesitak emango zaizkie. Beraz anima zaitetzte!

Udazkenerako ikastaroak

Udazken honetarako Udalak hiru ikastaro antolatu ditu: eskulana hariarekin, lora ehiarrak eta keramika. Hariarekin eskulan ezberdinak egin ahal izango dituzue; makrame, punto-kruz, gantxi-loa, e.a... Ikastaro hau astearte eta ostegun arratsalde izango da eta izenemateko epea urriaren 10ean amaituko da. Lora ehiarre dagokionez, ikastaro hau udaberrian egindako ikastaroaren jarraipena izango da, eta lehengo par-

taideek lehentasuna izango dute. Ikastaro hau hiru egunetan egingo da: urriaren 24an, 31n eta azaroaren 7an. Izenemateko epea urriaren 14a bukatuko da. Keramika ikastaroa urriaren 18an hasiko da eta asteazkenero izango da. Izenemateko epea urriaren 10ean bukatuko da.

Diapositiba emanaldia

Baina igandea iritsi baino lehen, ostiral honetan diapositiba interesgarriak ikusteko aukera daukazue. Javi Fernandez herritarrak Afrikara egin duen azkenengo bidaiatz hitz egingo dizue. Botswana eta Namibia herrialdeei buruz arituko da arratsaldeko 7:30ean Kultur Etxean.


 Nagore Goiburu

LEGORRETA

Udaletxearen inauguraketa

Irailaren 30ean inauguratu zen udaletxe berria eta ez zen ekitaldirik falta izan egun guztian zehar. Goizean herriko trikitilariak kalea alaitu ondoren, goizeko 11etan eman zitzaion hasera udaletxearen inaugurazio ekitaldi ofizialari. Eguerdian agintari eta herri erakundeen ordezkariak Bilkoin Elkartean bazkaldu zuten. Arratsalde partean pelota partiduak jokatu ziren. Legorretarrak: Josemi Garmendia-Eneko Guerrero Jon Orueza-bal-Ramon Aldasororen aurka. Afizionatuak: Artola-De Luz Aritz-Galarzaren aurka. Iluntzean Udalak sardinak, sagardoa eta ardoa eskeini zituen herritar eta bisitari guztientzat.

Inaugurazioko ekitaldietan zenbait agintarik hartu zuten parte, besteak beste Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Juan Mari Jauregi



Gipuzkoako Gobernadore Zibila. HBk bestalde protokolo guzti hauekiko desadostasuna azaldu zuen eta ondorioz ez zuen parte hartu inaugurazioko ekitaldietan.

Udaletxea Iñaki Albizu arkitektuak diseinatu du eta 128 milioiko kostua izan du. Eraikuntzaren zatirik aipagarriena Koldobika Jauregik eginiko balkoi bitxia dugu inolako dudarik gabe.


Jubilatuen urteroko festa

Herriko zaharrenek urriaren 1ean ospatu zuten beraien urteroko festa. Meza Nagusiaren ondoren haiauketakoa dastatzeko aukera izan zuten. Ondoren urtean zehar buruturiko ekintzen txapeldunei sariak banatu zitzaizkien. Bukatzeko herriko trikitilariak alaitu zuten bazka-

ria eskeini zitzaian.

Udaletxearekin batera inauguratu zen Zaharren Egoitza berria ere. Ez daude ez haserre herriko zaharrenek beraien txoko berriarekin.

 Josune Amondarain



2 urtekoak eskolan

Estu xamar baina tira! Hasi dira 2 urtekoak ere, eskolara bidean. Lehenbiziko egunetan, negar-saio bat edo beste, baina ez da harritzekoa. Jostailuz betetako gela polit bat daukate Eskolan, 9 apopilo berriek. Laster jarriko dira. Denen beharra izango dute eta nahiko lan Jasone andereñoak.

Ardi-jabeak gustora

Artileak aspaldian izan duen preziorik onena du aurten. 65 pezeta ordaindu zaie kiloko eta artzai eta ardi-jabeak pozik. Agorraren 25ean, asteartez, kamioi-trailer bat bete zuten puntaraino artilearekin. Azken urte pare honetan, ez zuela merezi eta, bazterrean alferrik galduta eduki dute artilea. Aurten gustora, berriro estimazioa izan duela eta.

Etorkizun bila

Ze herri nahi dugu etorkizunean? Ze ideia dituzu? Geroko Ataun egiteko, ze egin behar da orain? Udalak, OPE en-

horretan parte-hartzeko. Aukeran jende gutxitxo. Parte hartu nahi baduzu jo Udaletxera.

Gerriak bigun

Lan faltarik ez du izango Pako Urres-tarazuk, gazteak eta ez hain gazteak sasoiari jartzen. Lehenbiziko aldiz, 17 pertsona apuntatu dira San Gregorion, mantenimendu eta hirugarren adinekoen gimnasia klaseetara. San Gregorion bertan izango dira saioak eta ez dago erabakita, negu hotzean, frontoian edota beste leku itxiren batean, non izango diren.

San Martinen berriz, aurreko urtean bezala, 2 lek eman dute izena. Denetan edadetuena, Manuel Auzmendi, 74 urterekin. Urte askotarako!

Neskak sasoiko

Urte hasiera ona izan du futboleko nesken taldeak. Lazkao txapelketa irabazi du. Finalean, Ordiziako taldea hartu zuen mendean 3-0. Gipuzkoan

zehar jokatzen duten txapelketan ere, primeran hasi dira. Mutilen taldea, berriz, makaltxeago. Animo!

Heriotza

Agorraren 22an hil zen Logroñon, Antonio Erauskin Arruabarrena, 69 urterekin. Lazkao-mendiko Argintzao baserriko semea, ama Irangoa zuen, harreman haundia zuen herriko jendearekin. Herritar asko izan zen Zumarragan egin zen elizkizunean. Atsekabea lagun famolikoak.

Odola ameriketara

Estatu Batuetan izango da 29 herritarrek orain bi aste eman zuten odola. Floridako Unibertsitateak ikerketa batzuk egin behar ditu euskaldunon odolarekin, ADN frogak eta bestelakoak.

Guztiaren arduraduna Rene Herrera irakasle kubatarra da eta gustora joana izan behar du jendearen borondatea ikusita. Orain puskabatean izoztuta gordeko dute odola. Han dira nonbait RH-ak eta gainerakoak.

Jon Aizpurua

BI ORDIZIAR ETA ATAUNDAR BAT PASAIAKO 3 TRAINERETAN

Lehorreko zopekin hazitako arraunlariak

Tomas eta Mikel Arostegi ordiziarrek dira. Lehenak 25 urte ditu eta

Donibanekon dabil arraunean.

Mikelek 22 urte ditu eta Koxtapeko arraunlaria da. Biak ere Lezon bizi dira. Jon Galparsoro berriz

Donostian bizi den arren, San Pedroko traineran dabil. Hirurak ere puntako arraunlariak aurtengo Kontxako banderan parte hartu dute. Garaipena ordea Tomasen taldekoentzat izan zen. Hirurak ere 12-16 urte artean zituztela joan ziren Goieritik kanpora, eta lagun bidez sartu ziren ordurarte ezezagun zuten arraun mundu honetan.

G.- Kanpotik Pasaiko hiru traine-ruen artean dagoen 'pikea' izugarria da. Barrutik hainbesteko al da?


Tomas: Gehienbat berezko sanjuandar eta sanpedrotarren artekoa da 'pike' hori. Ezin dira begi aurrean ikusi. Arrauna herri hauetan Jainkoa bezala da. Arrauna ondo badabil, herria ondo ibiliko da.

Mikel: Herri honetan politikak egin ez duena arraunak egin du.

Jon: Bertako herritarrek txiki-txikitik jasotzen dute, eta ondoko arraun-taldea ezin dute begi aurrean ikusi.

G.- Aurtengo denboraldia nahiko polemikoa izan da. Traineruaren neurri eta pixuak ...

Tomas: Ez dago inor denok dakigun tipo horri 'hi ixilik egon hadi' esango



Mikel Arostegi, Jon Galparsoro eta Tomas Arostegi, hiru puntako arraunlari goierritar.

dionik. Tipo horrek nahi duena egiten du, eta lotsagarria da. Ahotsa altxatzen duen bakoitzean Federazioa kaka eginda jartzen da. Arauak betetzeko daude.

Jon: Personaje horretaz zer esango nuke ba nik? Gauza onik ez behintzat. Guk nahiko lan dugu egunero-egunero lanean aritzeaz, eta kirol munduarekin loturarik ez daukan gauzeekin hasten bada tipo bat, azkenerako nazka-nazka egiten zara. Aurtengoa desastrea izan da. Federazioko jendea aldatu behar da, araudia errespetatu araziko duen jendea sartu behar da.

Mikel: Seriotasun falta dago. Araudia hor dago, baina ez da betetzen. Lotsagarria da.

G.- Eta arraun Liga?

Mikel: Ondo eginez gero, arraunarentzat bultzada bat izan daiteke. Guk dirua ikusteko modua izango litzateke.

Tomas: Hori bai, beste bixitasun bat emango lioke arraunari. Hasieran babeslea zegoela esaten zuten, eta azkenean ez da ezertxo ere egon. Liga guk irabazi dugu eta ikurrina bakarrik eman digute.

Jon: Aurtun denboraldia hasi ondoren jarri zen martxan Liga. Ondo eginez gero, hor ere lehia polita sortuko litzateke.

G.- Denboraldia Kontxara begira prestatzen al duzue? Nola joan da aurtengo Kontxa?

Tomas: Bai, baina nik uste dut lehen gehiago zela. Tartean dauden guztiak irabaziz ere batere kalterik ez. Kontxa

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO

irabaztea mantela da, besteak serbiletak dira. Aurten Kontxa txurroz irabazi dugula esan digute. Baina ez dut uste San Pedrori txurroz bi aldiz irabazten zaionik. Libiari irabazteko egurra eman behar da.

Jon: Kanpora begiratu besterik ez dago. Goierriko jendeak Kontxako estropada bakarrik jarraitzen du. Txikitan 'Kontxako estropedatara joan behar diagu' esaten genuen, aurretik jokatu-tako beste estropaden berri ezertxo ere jakin gabe. Kontxa irabazteko prestakuntza behar da. Aurten txanda batetik bestera egon omen da ezberdintasuna. Zerbait izan zen, ez baita normala zia-bogan 12 segundu kentzea. Berdintasun bat dago eta normalean antzera ibili beharko ginatekeen.

G.- Urteko prestakuntza nola planifikatzen duzue?



Tomas: Hasiera batean korri, korri, korri, korri eta korri. Atletismokoak ematen dugu. Gero pesak sartzen hasi, astebukaeretan trainerilak edo bota, kailoa, eskuak egiten hasteko, abdominalak... Egunero entrenatzen dugu 11 hilabetez.

Mikel: Galdutako forma gutxinaka-gutxinaka errekuaratzen hasten gara,

berriz maila onera iristeko.

Jon: Fondoa hartzen hasten gara lehenengo. Lehorrean ibiltzeari garrantzi gehiago ematen zaio hasieran.

G.- Elkar espiatzen al duzue?

Tomas: Guk baino gehiago herriko aitonek. Santa Ana kapilan egoten dira, 'aurten San Pedrok 2 segundu gehiago egin ditu', 'hobeto dabil aurten'... eta horrelakoak

esaten dizkigute. Moncloa deitzen dioten leku honetan, kronometroekin eta ibiltzen dira. Informazioa ondo jasotzen dute. Baina egia esan ez diegu jaramon gehiegirik egiten.

G.- Patroia izateko zer behar da?

Mikel: Karakter gogorrekoa izatea nire ustez.

Tomas: Nekatuta zaudenean, ia arnasarik hartu ezin zaudenean, guzti hori ahaztuarazten saiatu behar du patroiak. Ziaboga ondo hartzeak ere garrantzia izugarria dauka, ziabogan proba bat irabazi edo gal baitaiteke.

G.- Hainbesteko diferentzia al dago traineruko postuen artean?

Tomas: Bai. Erdian indartsuenak, astunenak joaten dira. Joxe Angel Lujanbiok idiak deitzen die.

Mikel: Pisua nibelatzeko ere garrantzitsua da. Popan teknikoak joaten dira, erritmoa eramaten dakitenak, abilidada dutenak.

Jon: Ni orain arte popan ibili naiz beti. Aurten proan ibili naiz eta diferentzia nabaritzen da. Popan lasaia joaten da. Proan olatuak libratzeko... lana egin behar da. Nahiko lan izaten da.

G.- Aurtengo traineru onena zein izan da?

Tomas: Ikurrina gehien Oriok irabazi ditu. Onena agian Orio izango zen, erregularrena bai behintzat.

Arraunkada motzak:

G.-Kontxa.

Mikel: Arraun festa.

Jon: Desulisia edo festa.

Tomas: Bai hala da. Irabazten ez bada, urte osoko lanari ginda falta izaten zaio.

G.- Jose Luis Korta.

Mikel: Tranposoa.

Jon: Korta Korta da.

Tomas: Bakarra.

G.- Zein kolore duzue gustokoen?

Tomas: Urdin iluna.

Jon: Prakak eta urdinak ibiltzen ditut, baina moratua ere gustatzen zait.

Mikel: Berdea, arrosarekin ondo konbinatzen da eta.

G.- Garaipena ospatzeko modurik onena?

Tomas: Bazkari on bat eta juerga txiki bat, pasatu gabe.

Jon: Niretzat momentu onena helmugara iristeko momentua izaten da, azken paladak.

Mikel: Festa.

G.- Mendia ala itsasoa?

Tomas: Mendia. Aukera gehiago ematen du mendiak. Sanoagoa da. Itsasoan gainera mareatu egiten naiz.

Mikel: Itsasoa.

Jon: Biak, baina mendian gehiago ibiltzen naiz.

G.- Itsasoa barea ala mugitua?

Tomas: Barea.

Jon: Mugitua.

Mikel: Disfrutatzeko mugitua.

- Zein da zuen ametsa?

Jon eta Mikel: Kontxa irabaztea.

Tomas: Iaz San Pedrok egin zuen denboraldia egitea, ia ezinezkoa bada ere.

G.- Goierriara sarri etortzen al zarete?

Tomas eta Mikel: Oso gutxi, batez. Urtean behin edo, bazkariren batera.

Jon: Egunero arraunean aritzen gara eta aukera handiegirik ere ez dugu izaten Goierriara joateko. Denboraldia bukatutakoan sendiarteak eta lagunak ikustera buelta bat egiten dugu. Ataungo festak ere orain dira gainera.

Mikel Albisu - Loinaz Agirre


PELLO JOXE ARANBURU ALKIZAR-LAZKAOTARRAREN ESKUTIK Asteasuko Agirreren lehen biografia kalean

Asteasuko Agirreren liburuak ezagunak dira euskaltzaileen artean, baina bere bizitza zen ilunpean zegoena. Pello Joxe Aranburu alkizar Lazkaoratuak argitara eman du idazle klasikoaren lehen biografia eta hori dela eta goierritarrontzat gertuago dauden gauzetaz aritu gara berarekin.

Beterritar bat Goierrin

Alkizar honek, Larraul eta Asteasukoekin lotura handiak izan ditu txikitatik. Gazterik irten zen jaioteritik, ordea, Donostiako Seminarioan ikastera; 61ean apaiztu, eta geroztik Goierrin eman ditu hurrengo 34 urteak. Itsasoko Alegin haserako 4 urte egin apaizgintzan eta "Herri Gaztedi"n (garai bateko baserriar gazteen erakundea) ibiliz garaiko Goierrri guztia ezagutu zuen. Gaur oso ezagun diren pertsonalitateekin (Mari Karmen Garmendia-eta...) hamaika biler eginga. 66an beste gogo eta asmo batzuk sortu zitzaizkion eta jornada erdia Ormaiztegiako "Letag"-en sartzen hasi zen orduko apaiz-langileen gisa. Gogoan du oraindik nola hiru apaiz hasi ziren Goierrin egun berean: "Cura ye-ye" zeritzona (Beasaingo koajutoria), Jaxinto Fernandez Setien (Hernandorena orain, "Goiherriko Euskal Eskola"n urte askotan aritua eta Hernanin dagoena orain, beti ere euskaramunduan) eta Pello bera.

Goierriko sarreraren ondoren, gazte-jende piloa ezagutu eta Patxi Mea-



berekin bizi, "Letag" utzi eta "Ubi"n lan egin ondoren, Lazkaon hasi zen 75aren inguruan, euskara klaseak ematen gau-eskolan. Marian Bidegainekin batera lehen liberatua izan zen Pello Joxe "G.E.E."n. Geroztik, bertan eta Maizpide Euskaltegian izan da irakasle, azken honetan zuzendari izatera iritsiz, Dionisio Amundarainen ondoren, 90-94 artean, erretiratu den arte. Lazkaon bizi da eta apaizgoa utzi ez badu ere, ez du apenas ejerzitzen.

Antton Idiakenez, Marian Bidegain eta Iñaki Rezolarekin batera talde lanean aritua da Aranburu. Iazkoan "Gerriko Ikerlan Sariketa"ra lanik aurkeztu ez bazuen ere laukote honek, J.I. Gerriko, Klaudio Otaegi eta Juan Inazio Iztueta buruzko ikerlanekin sarituak izan dira aurreko edizioetan (jada argitaraturik daude biografia lan zorrotz horiek). Goierriko euskal klasiko horien

peskizan zenbiltzela, Asteasuko Agirreren erreferentzia eta aipu mordoa jasotzen zuten, han eta hemen. Urte bete ez da Agirreren bizitzan arakatzen hasi zela Pello Aranburu. Lazkao eta Estibalitzko beneditarren lanetan zenbait gauza xume, "Eusko Bibliografia"tik atera zituen Asteasukoaren "Eracusaldia".

Baina aurrera egiteko erabakiorrena Donostiako Seminarioko Artxiboan, "Korriedo"-ko artxibo nahiko itxiak Joxean Garrori esker iriki zitzaizkiola izan da. Asteasuko Udal Artxi-

bategia, Donostia eta Iruñeako Elizbarrutietako historia artxiboak, Gipuzkoako Artxibategi Orokorra eta Protokoloena ere eta beste zenbait artxibategi (Zarautzko frantziskotarrena, Arantzazu, Lazkaokoa...) miatu ditu. Pello Joxek bakarka eginiko edizioa da honoko hau eta bere kabuz argitaratzen du, Asteasuko Udalararen diru-babespe osoan. Irailean kalean izango da eta Imanol Goikoetxearen Asteasuko mapa eder bat izango du gehigarritzat.

Liburu honetan gizon eta apaiz asteasuarra, Agirre eta bere garaiko Asteasu ikertu ditu egileak. Pello Joxe zenbait ondorioetara iritsi da, horien artean Agirrek eragin handia izan zuela zenbait apaizek beren sermoiak euskaraz egiteko orduan eta baita Goierriko bi klasikoengan, Mutiloako Gerriko eta Zegamako Amundarainengan.

J. A.

**EROSKI
KAFETEGIA**

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN



Astigarretako eskolako gazteria

Horrelaxe deskribatu digu Jesusa Erauskinek argazkia. “*Gaur egun hutsik dago Astigarreta. Baina begira orduan zenbat gazte zegoen*”, esan digu Jesusak. 1960-61 ikasturteko argazkia da. Etxaniztarrek lagundu digute bakoitzaren nortasuna jakiten.

Goiko lerroan: Pedro Mari Odriozola, Karmen Irastorza, Maria Pilar Etxaniz, Rosa Etxaniz, Karmen Esnaola, Maria Asuncion Paternain (maistra), Josefa Telleria, Ana Maria Etxaniz, Sabina Aldasoro, Joan Joxe Esnaola, Inazio Esnaola.

Beheko lerroan: Inaxio Etxaniz, Hilario Etxaniz, Maria Jesus Etxaniz, Karmen Garin, Mari Jose Garin, Josefa Lizarazu, Mari Jose Aldasoro, Pilar Intxausti, Dionisia Lizarazu, Isabel Garin, Jose Luis Irastorza, Jose Agustin Irastorza, Bitor Esnaola.

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin. On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37



JATETXEA
☎ 885255

DONOSTIA

ALTZAGA

Ilizalde Ordizia

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

GARDEN GANBO

URRIKO ESKEINTZA BEREZIA!

- * Lora lehorrak eta etxe barruko apaingarriak
- * Zure gustora egindako zentroak

Olaberriko Merkatal Gunea ☎ 88 22 55



Munduko
hizkuntza
zentruen
erakunde
handiena

HIZKUNTZAK

95 -96 IKASTURTEA

5 urtetik gorako haurrentzako talde bereziak
Cambridgeko azterketarako prestaketa

 **inlingua**

ORDIZIA
Elkano,8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre,8
☎ 72 22 23

3. adinekoentzako laguntza



GRADUAZIOA DOHAIN

MULTIOPTICAS J.LARRAÑAGA
BERGARA ARRASATE ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522

Prezio paregabeak

3. adinekoa
bazaitugu eta,
zure betaurreko
zaharren orde
moda-modako
beste batzuk
erabili nahi
baduzu,
poltsikoari
astindurik eman
gabe, oraintxe
duzu MultiOpticas
J. Larrañaga-n
eskaintza
paregabe bat.

**BETAURREKOAK + KRISTAL
GRADUATU EZINHOBEAK 6.900 pta.**

**BIFOKODUN
BETAURREKOAK 9.900 pta.**

MULTIOPTICAS-en GARANTIAREKIN.
ETA ORDAINTZEKO ORDUAN, ABANTAILA UGARI

URREZKO
ERLOJU 1en ZOZKETA



**Informa
zaitez**